

TXUPETEA KENTZEA



LIBURUAREN FITXA TEKNIKO

Izenburua: Agur txupeteari!

Egilea: Alice Le Hénand

Argitaletxea: Ibaizabal

Urtea: 2018

Hizkuntza: euskara

Sinopsia:



- Txupetea nahi dut, amaxo!

- Jolaserako ez duzu behar.

- Ondo, baina lo egiteko emango didazu?

Liburu honetako protagonistek txupetea uzten ikasi behar dute.

Baina lehendabizi prestatu beharra dago.

IRAKURKETA GIDA DIDAKTIKO

Gaia: Txupetea modu osasungarrian kentzea.

Helburuak

- Haurrei txupetea kentzen animatzea.
- Gurasoei euren seme-alabari txupetea behin-betiko kentzen laguntzea.

Gomendatutako adina: 2-5 urte

Informazioa

- **Zein adinetan gomendatzen da txupetea erabiltzeari uztea eta zein arrazoiengatik?**

Elikagaiak hartzearekin lotuta ez dauden objektuen xurupaketa (hatzak eta txupetea, adibidez) fetu eta jaioberriaren prozesu ebolutiboko eta elikaduraren garapenerako jarduera naturaltzat hartzen bada ere, horren luzapenak ondorio kaltegarriak izan ditzake aurpegi-anatomian et ahotz-lerrokadura egokitzapenaren bilakaeran. Suerta ditzaken ondorio batzuk: malformazioak, hozkada gurutzatua, bakterio-floraren alterazioak, sistema linfatikoaren hipertrofia eta ahoko arnasketa. Ohitura hori 2 urte bete baino lehen etetea gomendatzen da, portaera horrekin lotutako ahoko kalteak modu naturalean berreskuratzeko gaitasuna ikusi delako.

Kontsultatu pediatrarekin, estomatologoarekin zein odontologoarekin, informazio zehatzagoa jasotzeko.

Liburua irakurri baino lehen...

1.- Zuen seme-alabarekin txupetearen inguruan hitz egin ezazue: asko hazi dela esaiozue, ondo egiten dituen zenbait gauza adierazi eta bere kabuz egin nahi dituen beste ekintzak zeintzuk diren galdetu iezaiozue.

Kontuan izan babestuta, lagunduta, maitatua eta gustura sentitzeak garrantzia handia daukala, eta momentu horretara arte lortu duenaz harro zaudetela jakinaraziz lortu dezakezue. Izan ere, zuen begietara txikiak badirudite ere, zuen hitz eta ekintzek zuen seme-alabez zein irudi daukazuen islatu egiten dute; eta transmititzen diezuena haiengan eragina izaten du. Umearengan sentitzen duzuen harrotasuna eta maitasuna adierazten badiozue, bere buruarekiko segurtasun handiagoa sentituko du, helburutzat hartzen duena bere kabuz lortzeko ziurtasunarekin.

2.- *Agur txupeteari* liburuari buruz hitz egin.

Utz iezaiozue zuen seme-alabari liburua nahi duen moduan ikusten eta manipulatzeko, irakurketaren lehenengo harremana irakurriko edota entzungo duen materialaren erabilerara ohitzea baita, behatuz, ukituz eta harekin jolastuz. Jarduera horretan parte har ezazue, azalari eta haren marrazkiei buruzko galderak eginez. Hemen galdera sorta bat, adibide gisa:

- Zein animalia dira hauek? Zer dira, handiak ala txikiak? Orduan, bere ama ala aita izango al da?
- Zer dauka txikiak eskuan? Zer dago egiten txupetearekin? Zergatik egongo al da zakarrontzira botatzen?
- Non daukazu zure txupetea gordeta? Begiratuko al dugu zergatik dagoen txupetea botatzen? Liburua irakurriko dugu, ba!

Liburua irakurtzen duzuen bitartean...

1.- Gomendio batzuk:

Liburua astiro irakurri, intonazio egokia erabiliz. Orrialde bakoitza zabalgarri banarekin dator, animalia bakoitzak bere txupetearekin zer egiten duen deskubritzeko. Zuen seme-alabari horiek mugitzen utzi, eta mugitu baino lehen eta ostean ikusten duenaz galdetu.

2.- Orriz orri:

• Kroko

(Zabalgarria mugitu gabe):

<< - Kroko, utziko al dugu hemen txupetea?

- Ez dut nahi, aitatxo.

- Paseatzeko garaia da, eta kanpoan galdu egingo duzu. Ondo iruditzen zaizu hemen uztea? >>

(Zabalgarria mugitu ostean):

<< Etxean geratuko da Kroko txikiaren txupetea. Epeletan, ohean goxo-goxo.>>

Egin ahal dizkiozuen galdera batzuk:

- Zein animalia daukagu orri honetan? Zer ari dira egiten?
- Txupetea erabiltzen ari da? Zergatik?

- Non uzten du txupetea?
- Paseotik etortzen direnean berriro hartu ahal izango du?

Jolasa:

Bere logelatik, paseora eramaten ez duzuen zeozer bilatu behar du, Krokak bere txupetearekin egin duen bezala.

• **Kangurutxo**

(Zabalgarría mugitu gabe):

- << - Kangurutxo, utziko al dugu hemen txupetea?
- Bai, tori, amatxo.
- Ikusten? Zure apalean utziko dugu, gerorako. >>

(Zabalgarría mugitu ostean):

<< Hara! Siestarako ardua da. Zer ondo! Kangurutzok bere txupete gogokoena hartuko du. >>

Egin ahal dizkiozuen galdera batzuk:

- Zein animalia daukagu orri honetan? Zer daude egiten?
- Zertarako erabiltzen du txupetea?
- Txupetea erabiltzen ez duenean, non gordetzen du Kangurutzok?
- Zuk lo egiteko erabiltzen al duzu txupetea?
- Txupetea erabiltzen ez zaudenean, non gordetzen duzu?

Jolasa:

Bere logelatik, leku bereziren batean gordetzen duen eta lo egiteko bakarrik erabiltzen duen zeozer bilatu behar du, Kangurutzok bere txupetearekin egin duen bezala.

• **Tximino**

(Zabalgarría mugitu gabe):

- <<- Tximino txiki, utziko al dugu hemen txupetea.
- Begira, aitatxo, haurtxoak ere txupetea dauka...
- Bai, behar du, oraindik txikia delako. Eta zurea oparituko bazenio, laztana?>>

(Zabalgarría mugitu ostean):

<<Tximino txikik zalantza egin du..., baina eman dio. Txupete gabe, handixeago sentitu da!>>

Egin ahal dizkiozuen galdera batzuk:

- Eta orri honetan, zein animalia agertzen dira?

- Zein kume txikia den hau, ezta? Zuk ezagutzen al duzu horren txikia den umerik? Eta txupetea erabiltzen du?
- Zer ematen dio kume nagusiak txikiari? Opari bat da ala bueltan emango dio handiari?
- Zuk nori emango zenioke zure txupetea?

Jolasa:

Bere logelatik, lagun edota familia kideren bati oparitzeko zeozer bilatu behar du, Tximinok bere txupetea haurtxoari oparitu dion bezala.

• **Hartz txiki**

(Zabalgaria mugitu gabe):

- <<- Hartz txiki, utziko al dugu hemen txupetea?
- Tori, amatxo. Jolasean ari naizenean, ez dut behar.
- Ederki, hartz txiki. Eta txupeteari agur esaten badiogu betiko?>>

(Zabalgaria mugitu ostean):

<<Hartz txiki pentsakor geratu da, eta oraingoan baietz esan du. Oso harro dago, baita amatxo ere.

Egin ahal dizkiozuen galdera batzuk:

- Orrialde honetan azalean zegoen hartz txikia eta bere ama daukagu. Hemen ere zakarrontzira botako al dute txupetea? Zergatik?
- Orduan, hartz txikik ez du berriro ere txupeterik erabiliko? Zein handia den! Eta ausarta!
- Zuk txupetea erabiltzen duzu, ezta? Zertarako?

Jolasa:

Bere logelatik, zakarrontzira botatzeko duzuen zeozer bilatu behar du, Hartz txikik bere txupetearekin egin duen bezala.

• **Katutxo**

(Zabalgaria mugitu gabe):

- <<- Katutxo, utziko al dugu hemen txupetea?
- Gaud shekulakoa gedtatu zait...
- Ez dut ulertzen zer diozun, laztana.>>

(Zabalgaria mugitu ostean):

<<Txupeterik ez duenean, katutxok hobeto hitz egiten du. Eta nagusiagoa ematen du.

Egin ahal dizkiozuen galdera batzuk:

- Zein animalia dira hauek?
- Nik ez diot Katutxori ezebez ulertu. Zuk ulertu al diozu? Zer esan du?
- Zergatik ez du ama katuak katutxoak esaten duena ulertzen?
- Txupetea ahoan daukagunean ez zaigu ulertzen orduan? Saiatuko gara? (Zuen artean hitz egin, txupetea edota atzamarra ahoan sartuta. Besteak zer dioen asmatzera jolastu dezakezue).
- Zer esaten dio amak katutxoari? Katutxoak kasu egiten dio?
- Eta txupetea ahotik kenduta, esaten dagoena ulertzen zaio? Zein ongi! Oso nagusia da orain katutxoa! Ez al zaizu iruditzen?

Jolasa:

Bere logelatik jadanik behar ez duen zeozer bilatu behar du, hori erabiltzeari uzteak nagusiagoa sentiarazten diona, Katutxori gertatu zaion bezala.

- **Guztiak**

<<Kito! Agur txupeteari! Ezta lo egiteko ere! Ederki, haurrak. Lortu duzue! - Bai, baina peluxe... betiko nirekin!>>

Egin ahal dizkiozuen galdera batzuk:

- Aiba, bi orri hauetan liburuan agertu zaizkigun pertsonaia guztiak daude! Gogoratuko ditugu nortzuk diren?
- Ipuinaren hasieran kume guztiak txikitxoak ziren, baina pixkanaka txupetea erabiltzeari utzi dute. Nolakoak dira orain?
- Zure lagunen artean, nortzuk erabiltzen duzue txupetea? Baina, egunez zein gauez erabiltzen duzue? Orduan, zer egiteko erabiltzen duzue txupetea?
- Eta nortzuk ez dute jadanik txupetea erabiltzen? Lo egiteko ezta ere? Zein nagusiak diren!

Jolasa:

Etxe osotik dituen txupete guztiak bildu eta zenbat dituen zenbatu behar ditu.

Liburua irakurri ostean...

1.- Istorioan agertzen diren animaliei buruz eta bakoitzak txupetea uzteko aukeratu duen moduari buruz hitz egin ezazue, bere gustukoena zein izan den galdetuz. Galderekiko izan duen erreakzioaren arabera, bere txupetea behinbetiko uzteko prest dagoenetz ikusiko duzue. Hala baldin bada, pasa zaitezte hurrengo jarduerara. Oraindik prest ez dagoela ikusten baduzue, oster, liburua berriro irakurri dezakezue, tartean egun batzuk utzita, umeak eskatzen duenean edota gaia lantzen duten beste liburu batzuk irakurri. Horiek egitean, zuen seme-alabarekin parte har ezazu, galderak egiten eta liburuaren pertsonaiak bezala jokatzera animatzen, beti modu progresiboan.

Txupetearen erabilerarekiko jarrera aldatzen duela ohartzen zaretenean, hurrengo jarduerara pasa zaitezke.

2.- Aukeratu ezazue, familia-kide guztiak batera, zer egingo duen bere txupetearekin. Zuen seme-alabari zer egin nahi duen edo nori oparitu nahi dion galdetu eta zuek ere proposamen ezberdinak eman iezaiozue.

Hemen dituzue aukera batzuk:

- Olentzero eta Mari Domingiren etxea bisitatzea joan eta bertan utzi.
- Perez Sagutxoari burkoaren azpian utzi.
- Gustuko duen beste pertsonaiaren bati postaz bidali.
- Lagun zein familia-kideren bati oparitu (ondo desinfektatu ostean).
- Horren premia duen beste umeren bati bidali (ondo desinfektatu ostean).
- Zakarrontzira bota.

Aukeratzen duzuen aukeratzen duzuela, pixkanaka egitea gomendatzen da: hasieran etxean egoteko soilik ez erabili eta etxetik irtetea leku bereziren batean gorde; ostean lotarako besterik ez erabili; gau batzuetan erabili eta beste batzuetan ez; eta azkenean, guztiz kentzeko gai dela ikusten duzuenean, behinbetiko kendu.

Ezinbestekoa da prozesu guztiaren barne sentitzea, lortutakoaz harro egon dadin eta bere buruarekiko konfiantza garatzen joan dezan. Garrantzitsua da maite dituen pertsonak berak egindakoaz harro sentitzen direla ikustea. Familia-kide zein lagunen batekin zaudeten momentuak aprobetxa ditzakezue txupetearekin zer egingo duen, nori eman dion ala eta noiz kontatzeko, haurra zuekin solasaldian bertan dagoelarik

3.- Hartzen duzuen erabakia aurrera eraman behar duzue; hori ez egitekotan, egindako jarduerak ez dute harenganako inpakturik izango. Egin ostean, txupetearekin egin duzuenaren marrazki bat egin ezazue familia-kide guztien artean, eta berarentzat garrantzia duen lekuren batean ikusgai jarri. Txupetea eskatzen duen bakoitzean, animaliek eta berak ere txupetearekin zer egitea erabaki zuten gogorarazi iezaiozue, egindako marrazkia dagoen lekura hurbiltzeko eta horretaz hitz egiteko aukera izanda.

4.- Gogoan izan txupetea gustuko duen beste objektu batengatik ordezkatu dezakezuela (panpin, burusi, burkor zein kuxinen bat...) triste,urduri zein beldurtuta sentitzen denean lasaitzen lagundu diezaion.

Beste jarduera batzuk:

1.- Liburu collagea

Txupetea kentzeari buruzko liburu asko daude. Irakurtzen dituzuenei, azalaren argazki bana atera, inprimatu eta horiekin collage bat egin, argazki bakoitzaren ondoan haien pertsonaiak marraztuz. Horrez gain, garrantzitsua iruditzen zaizuen zein gustuko izan duen orrialdearen marrazkia egin dezakezue, ipuinean gertatzen dena gogoratzeko.

Bukatzean, ondo ikusten den lekuren batean eskegi eta, beharrezkoa denean, horri buruz hitz egin (bere txupetea erabili nahi duelako negar egiten duenean, bakarrik egin ahal duen zeozer egiteko gai ez dela esanez kexatzen denean...).

2.- Istorio sorketa

Elkarrekin istorio bat sortu ezazue. Pertsonaia nagusia txupetea, zein txupete bat duen umea, den abentura batean murgilduko zaretela azaldu iezaiozue. Ipuinak izango duen izenburua aukeratu eta hasi zaitezte, umea bertan parte hartu dezan animatuz. Istorioa nahi beste luzatu dezakezue, eta sortutako abenturak marrazten joan, haurrak helarazten duen interesaren arabera.

Adib.: “Bazen behin, hemendik ez oso urrun, bidaia bat egin nahi zuela erabaki zuen txupete bat...”.

3.- Egutegia

Egutegi berezi bat sortu ezazue, non txupetea erabiltzen ez dituen egunak apuntatzen joaten zareten. Jardueran berak ere parte hartu dezan, egun osoan txupetea erabili ez duen galdetu ostean, bera izango da sinadura, marrazki zein pegatina jartzen duena. Modu horretan, jardueraren helburuaz kontzienteagoa izango da, erronka pertsonalagotzat hartuko du eta lortutakoaz harroago sentituko da.

Eguneroko lorpenak ospatu itzazue, materialak ez diren sariekin: animo zein zorion hitzak, besarkadak... Aurretiaz, familia-kide guztien artean, erabakitako denbora zehatz bat pasatzen denean, bere janaririk gustukoenarekin, familia jarduera batekin edota txartela zein marrazkiekin saritu dezakezue.

4. – Oroitzapenen kutxa

Oroitzapen ezberdinak (adb. bere jaiotzaren argazki bat) sartzeko kutxa bat sortu eta aukeratzen duen txupete bat bertan sartu. Kutxan sartzen dituzuen objektu guztiak oroitzapen baten parte dela eta nahi beste alditan zabaldu dezakezuela azaldu iezaiozue. Bertan dauden objektuak (txupeteak barne) ezin dituzuela erabili izango da arau bakarra. Egunak pasa ahala, objektu eta beste txupeteren bat sartzen joango zarete, txupeterik gabe geratzen den arte.

Haurrarentzat den kutxa zehatz bat egin dezakezue edo familia-kide guztiek parte hartzen duen kutxa, arau berak guztiengan aplikatuz.

GAIA LANTZEKO BESTE LIBURU BATZUK:



- Cuentos para dejar el chupete (Paule Battault). SM, 2023
- La nutria Ete se despide del chupete (Claudio Gobbetti). Manolito books, 2022
- Mon & Pin. ¡Quiero mi chupete! (Marta Biel). La Galera, 2022
- Los chupetes de Charlotte (Fanny Joly). SM, 2016
- Superchupete (Alicia Acosta). Jaguar, 2019
- ¡Adiós, chupete! (Mercè Seix). Algar, 2018
- Ilargia lapur (Pablo Alcántara). Txalaparta, 2012
- Mattin jadanik txupeterik gabe dabil (Hermien Stellmacher). Ttartalo, 2012
- Tanto eta txupetea (Ricardo Alcántara). Ibaizabal, 2011



*Liburu guztiak Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarean eskuragarri daude.